


Arrasate

1999ko
Apirilak 16
447. zenb.

P E S S



Etorkizunerako kiroldegia



IKUSPEGIA: J.M. VELEZ DE MENDIZABAL • GURE ENPRESAK: BAKAILO ETXEA
EUREN IKUSPUNTUTIK: J. M. ELEXPURU • KIROLAK: AEROBITOIA



Zoaz oporretan

altzariak ikustera etortzeagatik.

Astebeteko egonaldiak oparitzen ditugu, igerilekua, tenisa, etab. dituen txalet gune zoragarri batean.



TodoMueble edo TodoMueble Kabiara baldin bazatoz zure altzariak ikustera, **7 eguneko oporrak** eskura ditzakezu. Opari zuzenaz edo zozketaren bitartez.

Etortze hutsarekin parte hartu ahal izango duzu. Galdetu bezeroaz arduratzen den gure jendeari.

Eta zure erosketagatik zenbaki asko eskura ditzakezu, edo **zuzenean opor**

batzuk irabazi, txalet zoragarri batean, urbanizazio berrian, hondartzatik gertu, tenis jokalekuarekin, igerilekuak, basket, lorategia, petanka, etabarrekin. Astebeteko egonaldi asko ditugu astero oparitu eta zozkatzeko.

Gainera, badakizu **altzari eskaintzarik zabalena** duzula, arreta pertsonala eta profesionala, eta ordaintzeko erraztasun paregabeak:

- **24 hilabete**an, **interesik gabe**, eta **3. hilabetetik ordaintzen hasita** edo
- **6 hilabete**an eta eskura ordaintzeak duen beherapenarekin.

Oporretarako gogorik bai? **Zatoz lehenbailehen eta aukera itzazu egunik onenak.**



Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**



Barrio Anaka (Cruce Porcelanas Bidasoa)
Tel. 943 61 35 35 • **IRUN**

Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Zapatuak barne.

Inkesten dantza barregarria

Ondoko baieztapena irakurtzen duenean, nire adiskide hurko batek errieta egingo didan arren, inkestak gezur hutsaren aldaerarik sibilinoenak bide direla esatera ausartzen naiz, sakon saiatu arren zirrikitua nekez aurkitzen zaien horietakoak. Zer esanik ez, mugaketa horrek dimentsio erraldoiak hartzen ditu inkesta politikoez ari bagara. Gaur bertan horietako bi irakurri ahal izateko aukera izan dugu. Batak zioen euskaldunetarik %75ek bake prozesuak daraman martxa errefusatzan duela. Besteak, berriz, EA, EAJ eta HBren arteko gehiengoak bake prozesuari eutsi behar diola argitzen (?) zuen. Jakina, ez da Einstein izan behar, bi inkesta horien sorburua non dagoen antzemateko. Nolako interesak, halako inkesta-emaizak.

Inkestek erlatibotasuna adierazten



J. M. Velez de Mendizabal

“Inkestak, beti, enkargatzen dituenaren garaipena bideratzeko sortuak dira”

dute, iritzi-neurgailu huts eta okertzaileak bilaka baitaitezke. Gure gizartearen nolakotasunik arbuigarrietakoa dugu erlatibotasuna. Jarrera hori subjektibismoarekin nahastean denean ondorioa lehergarria gerta daiteke. Eta egia bat eta bera nahikoa (Jainkoaren antzera) dela sinistarazi nahi diguten guztiok gurekin jolasten ari direla salatu behar dugu ozen. Eta, irakurleak nik bezain ongi dakien bezala, hiritar arrunta ahul eta defentsagabe aurkitzen da, hainbeste jaurtigai interesaturen aurrean.

Inkesten gaineko hausnarketa apal batek berehala aurkezten digu egia-tasunaren adierazpen margoaskotarikoa.

Baina denek ondorio berdinerak garamatzate, hots, mekanismo eta bitartekoen gainetik gehien balio duena emaitza bera dela egiaztatzen. Gainerako tasunak azken helburuaren izenean sakrifi-

katzen dira, inkestak -beti!- enkargatzen dituenaren garaipena bideratzeko sortuak baitira. Nola gerta daitezke hain diferente, baldin eta giza-lagin bera bada, une eta baldintza bertsuetan, galdegaia ere berdina izanik?

Egiaren bilaketak metodo desberdinak exigitzen ditu, hiritarraren berezko jakinmina asetzeko baliagarriak izango badira. Horretarako, absolutua erlatibizatzea da lehen urratsa, baina erlatibizatzearen tranpan erori gabe, noski. Horrela, inkestatu guztiak ez datoz bat, baina denek diote bakearen xedea hurbilagoa dela; inkestatuek, aho batez, begi onez ikusiko lukete bortizkeriarik txikiena ere amaituko balitz, baina portzentaia berean orain dela sei hilabete baino hobeto gaudela aitortzen dute.

Inkesten irakurketa zuzenak ez luke, beraz, datuen erlatibizatzea adierazi beharko, inkestatuen iritziena baizik. Hori, demokrazian, egundoko erronka aurrerakoa da eta horretara jo beharko luke gizarte osasuntsuak. Elkarren arteko komunikazioa eta iritzi trukerako jarrera positiboa dira formula horretako ezinbesteko osagaiak.

“Lau urte denbora larregi da gaixoak Gaiberritze Zentroko eskaileretan gora eta behera ibil daitezen”

Josu Otadui

9

maila igo behar dira Gaiberritze Zentroa sartzeko

Hogeita bat urte dira Gaiberritze Zentroa Nafarroa Etorbidean jarri zela, Joxe Añibarro bizi izan zen etxean. Hogeita bat urte hauetan gaiso guztiek sarrerako bederatzi mailak gainditu behar izan dituzte, beren kasa edo lagunduta.

ITURRI ONETIK

Bidegorriak mintzagai

Deba Bailarako Lurrats eta Donostiako Kalapie elkar- teek antolatutako, maiatzaren 20an eta 21ean Bizikletentzako Azpiegitura eta Bidegorriei buruzko I. Jardunaldia egingo dira Arrasaten, MCCren egoitza nagusian.

Hamabost hizlarik parte hartuko dute egingo diren hitzaldietan eta mahai inguruetan. Ernst Miglbauer arkitekto austriarrak bidegorrien ondorioak turismoan eta ekonomian aztertuko ditu, Danubio ibaia inguratzen duen bidegorriaren esperientzian oinarriturik. Carmen Aycart Espainiako Burdinbideen Fundazioaren “Vias Verdes” egitasmoko koordinatzailea ere hemen izango da. Baita Daniel Eritja, Europako Txirriinduzaleen Federazio-ko lehendakariordea ere.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaketa:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketaren arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lago-Gorputia:** 112486. **ISBN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuaz egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 16
 • Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 17
 • Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz
- Igandea, 18
 • Gaeuz eta egunez: Korquera, Musakola
- Astelehena, 19
 • Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin
- Asteartea, 20
 • Gaeuz eta egunez: amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 21
 • Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 22
 • Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualetoia 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 943 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
 Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

HAUR BAZTERTUAK DIRELA ETA

Arrasateko ikastetxeok zuzenean eragin digun gai baten inguruan gure hausnarketaren berri eman nahi diogu Arrasateko herriari, hau da, lau haur portugesen eskolatzeari buruzkoa.

Urte eta erdi dirauen prozesu honetan, haur horiek eskolatzea eskatu digute. Bizi duten bazterte soziala eta beste kultura ezberdin batekoa izatea ez da oztopoa izan ikastetxeak duen erantzukizun hezitzailea eta pertsona horien gizarteratzeari dagokion arloa hartzeko.

Hala ere, ez dugu ezkutu nahi zailtasunak izan direla eskolatze normalizatu lortzeko. Sekulako pobrezia, gu ez bezala eskola baloratzen ez duen kultura eta guri gustatuko litzaikekeen baino pertsona gehiagoren aurreiritziak, horiek guztiek, ez dute aukerarik eman arazoak arrazonamenduz edo baikortasunez bideratzeko.

Arrasateko ikastetxeok ohituta gaude gizarteratzeko zailtasunak dituzten haurrekin lan egiten, eta modu koherentean onartzen dugu sektore sozialeko haur guztiekin lan egitea. Arrasateko ikastetxe guztion konpromisoa da haurrak eskolatzea eta hezitzea, baita baldintza horietan ere, bazterte sozial egoeretan, hain zuzen.

Baina gure praktikak irakatsi digu, gure aportazioa oso mugatua dela beste batzuen konpromisorik gabe,

horien baldintzak hobetu gabe ezin direlako liskarrak konpondu edo gutxienez, ezin dira gutxitu.

Izan dugun esperientziarekin eta gerora begira, bizi izan dugun bezalako egoerak bideratzeko eta baita gurasoen, Arrasateko Udalaren eta Arrasate osatzen dugun guztiok hausnartzeko ere, iritzi eta proposamen batzuk azaldu nahi ditugu, garbi baitago kasu horretan ez dela bat berea ere gertatu, eta horrek abandona-turik utzi du ikastetxea.

1.-Ikusten dugu:

- Elkarrekin bizitzeko zailtasunak eta sekulako pobrezia bizi baldintza batzuk etengabeko oztopoak direla eskolatzeko, hezitzeko eta gizarteratzeko edozein proiektu egiteko.

- Eskolatzen liskarrak gutxitzea eta pertsona horien bizi baldintzak hobetzea txanpon bereko aurpegiak direla.

2.-Horregatik, elkarbizitzeko eta eskolatzeko zailtasunak gaintzeko alternatibak eskainiz konpondu behar dira, eta aldeko jarrerak eskatzen ditugu:

- Arrasateko Udalariko dagokio baliabide materialak zein ekonomikoak jartzea haur eta familia horien bizi baldintzak hobetu eta horiek guztiak gizarteratzeko.

- Arrasate osoari dagokio pertsona guztiek duten gizarteratzeko, hezitzeko eta egoera egokietan eskolatzeko eskubidea izatea. Horrek ere, "ezberdinak" errespetatzea esan nahi du.

*Erguin Herri Eskola,
 San Andres Herri Eskola,
 San Viator Ikastola,
 Umezaintza Haur Eskola,
 San Frantzisko
 Xabier Ikastola,
 Ntra. Sra. de la Merced,
 Arrasateko Institutua
 eta Musakola Herri Eskola*

GALIZIA: SAN ANDRESE-TIK ARRASATERA

Gutun hau Arrasaten galiziar jai zoragarri hauek antolatzen dituztenei zuzendu nahi nieke, ondorengo galdera hau eginez: zer dela eta jai hauek San Andresen bakarrik ospatzea, galiziar etorkinak Arrasaten urte askoan bizitzen egon eta gero? Ez dute beste auzo batzuetako galiziarrek, beraien etxeetatik jaitsi eta olagarroa jan eta *alvariñoa* edateko eskubiderik? Ez dute gaineratzeko arrasatearrek ere jai hauetan parte hartzeko eskubiderik?

Zer gertatzen da Musakolako, erdialdeko, Erguineko, Altamirako, Uribe Auzoko... galiziar eta biztanleekin orokorrean? Ez dute, San Andresen bakarrik ospatzea eskubiderik? Jai hauek ez dira San Andresen bizitzeko zortea dutenei zuzendutako jaiak bihurtzen ari? Jai hauek San Andresen bakarrik ospatzea sekulako injustizia da. Arrasatear guztiek izan beharko lukete jai hauetan parte hartzeko eskubidea.

Eta injustizia hau kon-

UGARAN
jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
 Industria hornidurak
 Tel. 943 71 24 25

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

pontzeko, hona hemen nire proposamena: galiziar jai zoragarri hauek urte batean Arrasateko auzo batean ospatzea eta hurrengo batean beste batean. Horrela, Arrasateko biztanle guztiek aukera izango dute Galiziako kultura ezagutzeko, San Andresekoen monopoliorik gabe. Horrela ez litzateke emango Galiziarekin lotura duten guztiak San Andresen bizi diren itxura faltua.

Besterik gabe, nire proposamena kontuan hartu den esperantzarekin, San Andreseko guztiak agurtzen ditut.

Mikel Arrupe

GELMAKO LANGILEEI

Duela aste bat, bi hilabetez pazientzia handia izan eta gero, prentsari adierazpen batzuk egin genizkion Gelmak azken urteotan daraman prozesuaren aurrean sindikatu eta alderdi batzuek izan duten jokaera azalduz. Adierazpenak segur aski makurtuta egongo ziren, ordu bete lehenago PSOEko eta UGTko zinegotzi eta kide batzuen jarrera insolidaridarioak jasan behar izan baikenituen udalbatzan.

Asmo oneko zenbait pertsonak —eta segur aski, ez hain asmo oneko beste batzuek— zera ondorioztatu dute prentsan kaleratu zena ikusita: PSOE eta UGT soilik kritikatu ditugula, PNV, ELA eta sasoi batean ezkerreko jarrera radikalak zuten batzuk gure (ESK) ondoan daudelako Lizarra-Garaziko hitzarmenean. Baina, batak ez du bestearekin zerikusirik. Lizarra-Garaziko hitzarmena Euskadiko egoerari irtenbide demokratikoa emateko ahalegin serioa da; CCOO, UGT edo PSOEko jendeak sina zezakeen ituna, erakunde horiek gatazka egoera hau mantentzeko dituzten interes politiko edo ekonomikoak ez balituzte. Hitzarmena-

rekin bat etortzeak ez gaitu behartzen inola ere beste sinatzaileekiko ezadostasunak estaltzera; ezta bestelako aukerarik baldin balego, hauek alde batera uztera ere.

Argi utzi nahi dugu Loiti (PNV) edo EAko zinegotziek PSOEkoek bezain besteko edo handiagoko erantzukizuna dutela GELMAko kaleratzea dela eta Udalak izan duen jarrerari dagokionez. Dena den, PSOEkoak izan ziren beraiekin izandako elkarrizketan hitz eman zigutenak mozioari babesa emango ziotela. Eta gero ez zuten emandako hitza bete. Joera hipokrita hau izan zen gure haserre sortarazi zuena, eta beraiei egindako kritika zuzena.

Bide batez, oroimena piska bat freskatuz eta GELMA Elkarte Anonimo Mugatua zeneko garaiak gogoratzuz, UGTko zuzendaritzak oinarritzko egitekoa bete zuen eta langile askoren bizitza (baita UGTkoena ere) hondoratzen esku hartu zuen. Begi bistakoa da azken garaiotan UGTk ez duela jokatzeko GELMaren zuzendaritzan egiteko hori; bai Sebastian bezalako jendea ELAra pasatu zelako edo Guibert (Loitiren laguna, iturri

sozialistek diotenez) bezalako beste batzuek inoiz ez dutelako sindikatuen beharrik izan. Bakarrik moldatu dira langileak esplotatu eta beren negozioak indartzen.

GELMAko hainbat pertsonatan izandako aldaketaz jabetuta gaude; bizitzan portatera erradikala erakutsi nahi izan duen jendea (eta behar bada etorkizunean ere horrela segituko dute) eta orain zuzendaritzan lekua duen jendea. Edo lehen sugeak egiten parte hartzen zuen fabriketan eta orain gehien berotzen duen eguzkiaren itzalari begira daudenak, agintzen duen jendearen ondoan.

Idatzi honen bidez 10 orduko lanuztea egiteko proposamena babestu zuten 86 pertsonak eskertu nahi ditugu, eta gogor salatu langileen ordezkari bezala beren burua aldarrikatu zutenak, horiek izan baitziren Papirekiko gutxieneko elkartasuna posible egin zezakeen alternatibarik aurkezteko gai izan ez zirenak. Langileek ez dute merezi Peña, Oses edo Perea bezalako jendeak ordezkatzeko. Bestalde, balioetsi egiten dugu kaleratzea gutxietsi duten ELA eta UGTko kideen jokabidea.

ESK



X. URTEURRENA

Remedios Mendizabal Ceciaga

Orain dela 10 urte gure ondotik alde egin zenuen, baina oraindik gurekin segitzen duzu.

Zure seme-alabak eta bilobak



Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Dk.

- Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatu.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomatu.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Azido urikoa
- Loditasuna
- Arteria hipertentsioa
- Diabetesa
- e. a...

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA

Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16

Zer iritzi duzu NATOk Jugoslavia bonbardatu izanaz?

Laster hilabete egingo da NATO Jugoslavia erasotzen hasi zela




Iñaki Zubizarreta
(38 urte)
Langilea

Gehiegikeria hutsa; baita serbiarrek kosobarrekiko duten jarrera. Beste bide batzuk daude, indarkeria erabili gabe.



Iñaki Iturriotz
(31 urte)
Langilea

Gehiegikeria hutsa. Potentzia handiak txikiez aprobeztatzen dira. Konpontzeko elkarrizketa behar da.



Leandro Vallina
(66 urte)
Erretiratua

Ez dut askorik ulertzen. Ez zait ondo iruditzen, baina ezta ere kosobarrak erasotzea. Amerikarren kontuak!



Ane Lopez de Bergara
(17 urte)
Ikaslea

Batetik ondo, Milosevicen jarrera salatzeke, baina ez da modu onena. Hitz eginda konpontzen dira arazoak.



Ivan Diaz
(22 urte)
Ikaslea

Ez nago oso jantzia gai horretan, baina ez zait ondo iruditzen.



Pilar Ezkurra
(81 urte)
Erretiratua

Gaizki. Gu gerra ikusita-koak gara eta gosea eta gorrotoa besterik ez da egoten. Mahai borobilean eseritzen direnak egon beharko lirateke gerran.



Tina Hernandez
(53 urte)
Etxekoandrea

Gaizki, alde batetik zein bestetik. Baina gehiegi irauten ari direla uste dut. Aspal-di amaitu beharko lirateke bonbardaketak.



Maria Jesus Loiti
(54 urte)
Etxekoandrea

Gaizki. Guk ezin dugu ezer egin, baina berba egin beharko lukete.

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

LEKIN
Ileapaindegia

Jubilatuentzako prezio bereziak

Moztu: 1.000 pta
Garbitu eta orraztu: 1.000 pta

Erguin, 15. Behea
Tel.: 943 79 80 23

Ippek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Arrasate

LANAK

SANTA TERESAN

S. Teresan eta Doneztebe Portukon saneamendu lanak.

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

KONTZEZINON


Etxeak egiteko lanak.

FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak.


AGERRE PLAZAN

Plaza berria egiteko lanak hasi dira.




Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 16



LARUNBATA 17




IGANDEA 18

Ez da aldaketarik espero. Ipar haizea izango da nagusi. Beraz, hotza egingo du.

Udaberi nahasia dugula eta larunbatean ere lainoak eta ostarteak izango ditugu. Termometroa ez da aldatu.

Iparaldeko haizeak gurekin segituko du, beraz neguko eguraldia izango dugu.

Ilargia



Ilgora

Apirilaren 22an, osteguna, ilgora izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%96,8



Distantziak

| Arrasate | | | | | | | | | | |
|----------|--------|------------|-------|---------|----------|---------|--------|--------|-------|--|
| 121 | Baiona | | | | | | | | | |
| 690 | 579 | Bartzelona | | | | | | | | |
| 57 | 170 | 620 | Bilbo | | | | | | | |
| 1.159 | 1.038 | 2.883 | 1.207 | Brusela | | | | | | |
| 72 | 50 | 529 | 119 | 1.088 | Donostia | | | | | |
| 40 | 180 | 530 | 66 | 1.206 | 118 | Gasteiz | | | | |
| 107 | 120 | 437 | 159 | 1.180 | 92 | 93 | Iruñea | | | |
| 391 | 519 | 621 | 395 | 1.556 | 469 | 351 | 407 | Madril | | |
| 864 | 743 | 1.113 | 911 | 296 | 792 | 910 | 884 | 1.260 | Paris | |

16 ostirala

■ ZINEA

Hi-Lo Country, Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 22:00etan.

■ MAHAI INGURUA

Gaztetxearen VIII. urteu-
rena ospatzeko, herriko kul-
tura eta gazte taldeen arteko
mahai ingurua antolatuta dute
gaztetxean, 19:00etan.

■ CIM-EK ATEAK
ZABALIK

CIM hitzkuntza eskolaren
25. urteurrena ospatzeko "Ate-
ak zabalik" izeneko ekimena
eratu dute. Arratsaldeko
17:00etatik aurrera, CIMen
instalazioak ezagutu nahi
dituen guztiak, ateak zabalik
izango ditu. Luntxa ere eskai-
niko dute.

■ LHT-REN AURKA

Lastertasun Handiko Tren-
naren aurkako taldeak kale
agerraldia antolatu du Donos-
tiako Boulevarrean. Hara joa-
teko autobusa arratsaldeko
15:00etan aterako da, Garibai
kaletik.

19 astelehena

■ ZINEA

Muertos de risa, Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 21:30ean.

■ EUROA MINTZAGAI

Eroskiren Kontsumo Are-
toak antolatuta, "Euora eta
kontsumitzailearengan dituen
ondorioak" izango ditu azter-
gai Lourdes Rodriguezek,
Europako Ikaskuntza Zentro-
aren zuzendariak. saioa arra-
tsaldeko 16:30etan, Monte-
rronen.

■ BIDEO EMANALDIA

Liburuaren Eguna dela eta,
Grandes esperanzas izeneko
bideo emanaldia eskainiko
dute Monterronen, arratsal-
deko 19:00etatik aurrera. Bide-
oa Charles Dickensen elebe-
rrian oinarritua dago.

20 asteartea

■ ZINEA

Muertos de risa, Alai zine-
man, arratsaldeko 19:00etan
eta 22:00etan.

21 asteazkena

■ IRPF-A MINTZAGAI

Merkataritzarako Lagun-
tza Teknikorako Bulegoak
IRPF berriaren inguruko jar-
dunaldia antolatu du, Gipuz-
koako Bazkundearen lagun-
tzarekin. Xabier Aldaregia,
Gipuzkoako Bazkundeko
kidea izango da hizlaria. Saioa
Lantegi eskolako areto nagu-
sian izango da, 14:15ean. Ize-
na aurrez eman beharko da eta
sarrera dohainik izango da.

■ JARAUSPENAK
ETA OINORDEZAK

Agata Libano abokatua
Jarauspenak eta Oinordetzak
gaia jorratuko du Monterro-
nen, arratsaldeko 16:30ean,
Eroskiko Kontsumo Aretoak
eraturik.

■ GURASOENTZAKO
JARDUNALDIAK

Erguin Herri Eskolak

17 larunbata

■ ZINEA

Muertos de risa, Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30ean eta 22:00etan.

■ MENDIKO ESKI
ZEHARKALDIA

Besaide Mendizale Elkar-
teak mendiko eski zeharkal-
dia antolatu du Neouviellera.
Autobusa goizeko 05:00etan
aterako da, Garibai kaletik.

18 igandea

■ ZINEA

Muertos de risa, Alai zine-
man, arratsaldeko 17:00etan,
19:30ean eta 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Gaztetxearen VIII. urteu-
rrenaren barruan, mendi ibi-
laldia antolatu dute autobide-
aren ibilbidean zehar. Irteera
goizeko 10:00etan izango da,
gaztetxetik.



Txitxinpe
Berezitasunak
Kazulatuak
Otarako hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76



Pavimentos AGR
ARROZTEGIA
Mota guztietako zoruak • Lijatu eta
barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**BASABE
JATETXEA**
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

gurasoentzako jardunaldiak antolatu ditu, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Amaia Vazquez Eguzkitza izango da hizlaria. Afektibitatea eta sexu hezkuntzaren kokapen teorikoa, kokapen honen barruan zer nolako ardurak dagozkion familiari eta 7-12 urte bitarteko ezaugarri psiko-afektibo sexualak izango ditu hizpide.

■ **ZINE EMANALDIA**

Gaztetxearen VIII urteurrenaren barruan, Ken Loach zuzendariaren *Lady Bird*, *Lady Bird* filma eskainiko da gaztetxean, 21:30etan.

■ **KALE AGERRALDIA**

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kale agerraldia deitu du, apirilaren 23rako. Udal hauteskundeak direla eta, zinegotzi euskaldunak eskatzea izango du helburu agerraldiak. Herriko plazan elkartuko dira, arratsaldeko 19:30etan. EHEK salatu nahi du udalean azken urteetan eratu diren batzordeek gaztelaniaz nagusiki egiten dutela lan.

22

osteguna

■ **2000. URTEKO EFEKTUA**

Carlos Arpon informatikan lizentziadunak "2000. urteko efektua. Zer eragin izango du kontsumitzailearengan" jorratuko du Eroskiren Kontsumo Aretoak antolatutako hitzaldian, Monterronen, 16:30ean.

■ **BIDEO EMANALDIA**

Gaztetxearen VIII urteurrenaren barruan *La Guindalera*, *Iruñeko gazte asanblada* eta *LHTren* inguruko bideo emanaldiak eskainiko dituzte gaztetxean, 19:30etan.

■ **DROGOMENPETASUNA**

Institutuko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen gurasoentzako drogomenpeketasunari buruzko hitzaldiak, 14:30ean eta 18:00etan, Txus Kongilekin.

■ **JONAN FERNANDEZ**

Hitzaldia udaletxeko pleno aretoan, 19:30etan.

■ **GAZTETXEAREN VIII URTEURRENA**

Astelehena, apirilak 19, gaztetxearen historia eza-gutzeko erakusketa irekiko da gaztetxean. Erakusketa apirilaren 25a arte egongo da zabalik. Horrez gain, Hies Ekimenaren erakusketa ere igandea arte egongo da zabalik. Serigrafia lantegiak ere apirilaren 18a arte iraungo du.

■ **ZOKZETAKO ZENBAKIA**

La Merced ikastetxeko zozketaren zenbaki saritua hauxe da: 2265. Saria jasotzeko epea apirilaren 30ean amaituko da.

■ **PAPIREKIKO ELKARTASUNA**

Pedro Mertzani laguntzeko kontu korrantea ireki dute bere lagunek. Kontua Kutxakoa da: 2101 0055 68 001082279.9.

■ **EUSKARAZ IKASTEKO**

GATCek eta Arrasateko Udalak dendariei zuzendutako ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa 30 ordukoa izango da eta euskaraz berba egiten jakin bai, baina idazten ez dakitenentzat izango da. Ikas-

taro honen helburua da oinarritzko agiriak euskaraz nola bete irakastea. Ikastaroa maiatzean hasiko da. Interesatuek deitu GATCen 943 79 30 90 zembakira.

■ **TAILU IKASTAROA**

Arrasateko Tailugilen Elkarteak hasiera mailako tailu ikastaroa antolatu du. Saioak apirilaren 19an hasiko dira eta izena emateko 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 79 67 64 (Imanol) dei daiteke.

■ **LIBURUAREN EGUNA**

Apirilaren 23an, osteguna, "Liburuaren eguna" ospatuko du udal liburutegiak. Apirilaren 19tik 23ra bitartean liburutegiko ateak zabalik izango dira. Apirilaren 20an "Tribuaren hitz galduak" poesia eta kantu saioa eskainiko dute Pako Aristik eta Mikel Markezek, 19:00etan Monterronen. 18:00etan AEDren Arrasate 98 Lehiaketako sari banaketa egingo da. Asteazkenean zehar liburu hondatuen feria 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Liburutegiak doan emango dizkie bazkideei hondatuta edo erabiltzen ez diren liburuak.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

USTEAK USTE

Geroa,
alferraren leloa


Orain 21 urte Gaiberritze Zentroa Nafarroako Etorbidera ekarri zen. Harrezkero, hortxe ibili dira ehundaka lagun zauriek eta krisiek gorputzean eragindako kalteak osatzen.

Hogeita bat urte hauetan gaiso guztiek sarrerako bederlatzi mailak gainditu behar izan dituzte, beren kasa edo anbulantziaren gidarien laguntzarekin. Burugabekeria hori ikusita, bai zentroko langileek eta baita gaisoek berek ere, hainbat aldiz eskatu dute arranpa bat jartzea.

Erantzun asko jaso dituzte, beti ere soluzioa geroko gerotan utziz. Kontua da 21 urte joan direla eta sarrerako eskaileak oraindik ere hortxe daudela, denon lotsarako.

Oraingoan esan zaie legealdi honen barruan zentro berria egingo dela ospital berrian. Legealdi honi, oster, ia lau urte geratzen zaizkio. Tarte horretan zer egingo dute hemiplegiak edo esklerosiak jota doazen gaisoek? Inork ez du zentzu apur bat izango, besterik ez bada behin behineko irtenbide bat jartzeko?

Joxe Aranzabal



Euskarazko erotismoa

* Juan Martin Elexpuru

Batzuek esaten dute euskaldunak hotzak garela sexu kontuetan; beste batzuek, oster, hoztasun hori azalekoa dela, puxkat sakondu ezker sumendi bat aurkitzen dela lehertzeko prest. Ez dakit; ziurrenik beste batzuen antzekoak izango gara.

Gizartea asko aldatu da sexu kontuetan, zorionez; lehen bekatua zena orain osasuna da. Literaturara etorrita, lehen erre beharreko liburuak gaur nonahi aurkituko ditugu salgai. Eta filmak, eta aldizkariak, eta CD-romak.

Liburuak irakurketaz gozatzeko dira, batez ere. Literatura erotikoak—literatura erotiko onak, jakina—horretaz gain, badu beste zenbait dohain: irakurlea bertzea, toleranteagoa eta jakintsuago bihurtzea, joera eta praktika sexual desberdinak ezagutzaraztea, etab.

Euskarara berandu samar heldu da literatura erotikoa. Esku bateko hatzez konta daitezke generoko obrak. Ez da harritzekoa ere, beste

lehenetasun batzuk izan ditugu. Baina heldu da azkenik. Joan den abenduan Durangoko Azokan aurkeztu zuen Txalapartak bere Literotura bilduma, artikuluen sinatzaileak zuzentzen duena.

Euskal Idazleen Ipuin Erotikoak izan zen lehen liburua. Hemezortzi ipuin berri, hemezortzi euskal idazlerenak. *Krabelina Beltza*, nire nobela bero-beroa, bigarrena. Azokako libururik salduenetarikoak izan ziren biak. Gabonetarako agortuak zeuden lehen edizioak, 1.700 alekoak. Garbi geratu da bazela egarria, kilikili eta azukre faltarik ez dagoela merkatuan. Eta datu adierazgarri bat: erosleen artean emakumeak ugariago gizaumeak baino.

Hirugarren liburua maiztean agertuko da eta itzulpena izango da. Idazlea, Pilar Cristobal, hirurogei bat urteko emakume madrildarra, sexologoa, psikologoa, filologoa... Oso emakume jakintsua eta atsegina. Eta, gauza harrigarria, euskara idatzia ongi ulertzen duena. Bere liburua: *Esku Bakarrarekin Irakurtzeko Kontuak*. Hamahiru ipuin labur, zein baino zein irakingarriagoa.

Zenbaitek uste izan du gizon kontuak direla hauek eta ez da hala. Egia da gizonen eta emakumeen ikuspuntuak inoiz desberdinak direla alor honetan, baina egia da, baita, emakumeek idatzitako literatura erotikoa sarri gordinagoa eta xehetasunzaleagoa izaten dela.

Aurrera begira, klasiko batzuen itzulpena dugu buruan, euskal literaturaren antologia bat, jostailu erotikoei buruzko beste bat... baina, batez ere, euskarazko orijinalak nahi ditugu. Ea gure euskal idazleak tentaldian jausten diren behingoz...

* Idazlea

“
Emakumeek idatzitako literatura erotikoa sarri gordinagoa eta xehetasunzaleagoa izaten da
”

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Martxan dagoen
TABERNA ALOKAGAI
Uribarrin
Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81



Fagor enpresaren kanpoaldean langileak ordu betez egon ziren.

Mondragoek bakea nahi du

Lizarra-Garazi akordioaren sinatzaileek deitutako lanuzteak erantzun zabala izan zuen Mondragoen. Eguerdiko 12:00etatik 13:00etara, lantegi, eskola, denda eta taberna gehienetako langileak kalera atera ziren Lizarran sinatutako hitzarmenari atxikimendua modu lasaian erakutsi nahian.

Bakea izan zen eskakizun nagusia, larunbatean Bilbon izandako kale agerraldian bezala.

Arrasateko lantegi askotako langileek onartu zuten lanuztea, Fagor eta JOMA enpresetakoek, adibidez. Kutxa eta Euskadiko Kutxa banketxeek ere halaxe egin zuten. Enpresa gehien aurrealdean langile talde txoak eratu ziren, lanuzteak iraun zuen bitartean.

Denda eta tabernen

kasuan ere, nabarmen jarraitu zen ordubeteko lanuztea. Eroski eta BM supermerkatuek ateak itxi zituzten eguerdi parte horretan eta langileak dendetako ate aurrean bildu ziren.

Denda txiki eta taberna gehienak ere itxita egon ziren, herriaren erdialdeko kaleetan batez ere.

ESKOLAK GELDI

Irakaskuntzari dagokionez, lanuztearen jarraipena %90ekoa izan zela esan daiteke. Izan ere, pare bat eskola izan ezik, beste guztiak lanuztearen alde agertu ziren. Zenbait eskolaren sarreretan, gainera, kale agerraldiak egin zituzten, Mondragon Unibertsitatean kasu.

Arrasateko Udaleko langileek ere bat egin zuten lanuztearekin. Hango langi-

leak, alkatea barne, plazara atera ziren. Udal langileei beste hainbat erakundetako jendea gehitu zitzaizen: AED, Txatxilupurdi eta AEK-ko langileak, esate baterako. Baita beste hainbat eta hainbat herritar ere.

AUTOBUSETIK BEHERA

Pesako autobusetan ere makinan bat pertsona autobusetik jaitsi behar izan ziren, gidariek lanuztea egitea erabaki zutelako.

Azkenik, komunikabideei dagokienez, Arrasate Irratia ixilik egon zen 60 minutu horietan. Arkoko langileek, ere, aho batez onartu zuten lanuztea.

Zuei irakurleoi lanuztearen berri emateko, berriz, derrigorrezkoa izan zen gutxieneko zerbitzua antolatzeari.

Jaiotzak


- Carmen Galan Garcia. Martxoaren 14an.
- Eneko Martinez Vargas. Martxoaren 20an.
- Markel Vazquez Velez de Mendizabal. Martxoaren 22an.
- Josu Orobengoa Iregi. Martxoaren 30ean.
- Haritz Gallastegi Pagaldai. Apirilaren 2an.
- Maitane Ugarte Presas. Apirilaren 7an.

Ezkontzak

- Sergio Luri Bravo eta Josefina Penas Garcia. Martxoaren 27an. Zibilez.
- Marcelino Mendizabal Lasa eta Marisa Vitoria Zubiria Lagunilla. Martxoaren 27an. Elizaz.
- Roberto Abarrategi Metola eta Maria Asuncion Arenaza Gabilondo. Apirilaren 10ean. Zibilez.

Heriotzak

- Maria Josefa Lizarralde Buenetxea. 86 urte. Martxoaren 24an.
- Gualberto Erguin Barkin. 80 urte. Martxoaren 25ean.
- Jose Luis Garai Azkarratezabal. 69 urte. Martxoaren 25ean.
- Jose Luis San Vicente Abarrategi. 58 urte. Martxoaren 27an.
- Gregorio Gallego Ruiz. 86 urte. Martxoaren 2an.
- Manuel Fradejas Gutierrez. 81 urte. Apirilaren 5ean.
- Juan Miguel Tena Ignacio. 43 urte. Apirilaren 7an.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Astoari monumentua Musakolan

Bakoitzak bere astoari arre. Eta musakolarrek bereari, noski. Arrasateko Udalak onartu egin du Musakolake Batzordearen proposamena, Arruenako parkean asto baten eskultura bat jartzeko. Oroitarria Eskoriaitzako artista batek egingo du, Lourdes Umerezek. Honek brontzea aukeratu du irudia egiteko.

Eskulturako astoak bi otzara eramango ditu, unalak eta arrana. Konpleto joango da, beraz. Arruena baserria zegoen parkean ipiniko da, magnolioaren ondoan. Metro eta erdi garai izango da eta umeek ez dute arazorik izango asto gainean igotzeko eta jolas egiteko haren bizkarretan.

Eskulturak bi milioi pezetako kostua izango du. Arrasateko Udalak ez du txikitarik ere jarriko. Musakolarrek arduratuko dira diru bilketaz. Dagoeneko hasi dira diru eskaerak egiten kutxen eta zenbait enpresaren artean. Ondoren, tabernariei eta auzotarrei egingo zaie eskaria.

Eskultura ekainaren 18an edo, ezarriko da, hauteskundera pasatu eta gero eta San Juanak baino lehen. Egun hartarako musakolarrek etiketaz jantzita joatera gonbidatu dituzte antolatzaileek. Azken urtetan Urrezko Astokiloa saria jaso dutenak ere hantxe izango dira, astoari ohore egiten.

Hogeita bat urte eta gero, oztopoak elbarrientzat

Arrasateko hainbat familiak protesta idatzi bat bidali die Eskualde ospitaleko arduradunei, Nafarroa etorbidean dagoen Gaiberritzeko Zentroko sarrera erabat desegokitzat jotzen dutelako. Ospitaleko gerenteak erantzun dienez, legealdi honetan zentro berri bat ezarriko da ospitalean bertan.

Xabi Zubieta gazte eskoriatzarrak esklerosi anitza dauka eta anbulantzia batek Arrasatera ekartzen du egunero, Nafarroa Etorbidean dagoen Gaiberritzeko Zentroa.

Zentroan sartzeko orduan hasten dira komeriak: Xabi batzuetan gurgildun aulkian etortzen da eta beste batzuetan, makuluekin. Gora igotzeko sarrerak dituen bederratziz mailak gaindaitu behar ditu. Jaisteko, beste horrenbeste.

Horixe da Xabiren kasua eta Albina Aranarena eta egunero-egunero etxe honetara modu batean edo bestean doazen guztiena.

Hori ikusita, gaixoen hainbat familiarrek idatzi bat bidali zieten martxoaren 15ean Eskualde Ospitaleko arduradunei. "Gezurra dirudi", esaten zuten sinatzaileek, "XXI mendearen atarian ere horrela ibili behar izatea Osakidetza eta Deba Garaiko Eskualde Ospitalaren menpe



Gaiberritzeko Zentroan horrela ibili beharra ere...

dagoen zentro batean". Salaketarekin batera, Gaiberritzeko Zentroko sarrera birmoldatzea eskatu zuten, "elbarriak edo aldi baterako ezindurik daudenak oztopo barik sar daitezten".

Erantzuna berehala etorri zaie. Jose Luis Angulo ospitaleko zuzendariak zera esan die, legealdi honetan bertan gaiberritze zentro berria egingo dela ospitalean bertan, oraingo arazo hauek konponduko dituen.

Salaketa sinatu zutenei ez zaie nahikoa iruditu Jose Luis Anguloren erantzuna, legeal-

di batek lau urte dituelako. Aldi horretarako behin behinako arranpa bat jartzea eskatzen dute.

Nafarroa Etorbideko gaiberritze zentroa orain 21 urte ekarri zen hona zentro asistentzialetik. Urte horietan bailarako jende asko ibili behar izan da eskaileretan gora eta behera, nahiz eta askotan eskatu den sarrera egokitzea eta anbulantzien zako geraleku bat jartzea, eta abar, baina orain artean inoiz ez dute ganorazko erantzunik jaso. Zer gertatuko da oraingoan?

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57



Era askotako ekitaldiak antolatzen ditu SUDCek.

SUDCek zuzendaritza berria du

Mondragoeko elkarte gastronomikoak batzen dituen SUDC elkarteak lortu du zuzendaritza batzorde berria eratzea.

Azken hiru hilabete hauetan SUDC osatzen duten elkarteetan batzar orokorrak egin dira. Batzarretan elkarte bakoitzak SUDC erako ordezkaria aukeratu du.

ZORTZIKOTEA GIDARI

Ondorengo hauek, izango dira, beraz, zuzendaritza batzordea berria eratzen dute-

nak: lehendakari lanak betetzen Joseba Andoni Alzelai. Honen ordezkoa, berriz, Jesus Maria Egidazu. Diru kontuak zaintzen Juanjo Madinabeitia arituko da eta idazkari moduan, Roberto Beltran de Gebara. Hauetaz gain, lau kide ere izango dira: Antxon Zumalde, Jesus Maria Arce, Rafael de la Cruz eta Iñaki Arana.

Konturatuko zineten moduan, orain arte baino bi pertsona gehiago daude zuzen-

daritza berrian. Modu honetan, lana banatzeko erraztasuna orain artekoa baino handiagoa izanik, otsaileko egoera zalantzarria berriz ez errepikatzea lortu nahi da eta noski, honela, SUDCen jarraipena ziurtatuta dago.

Indartsu dator, gainera, zuzendaritza batzorde berria. Izan ere, astirik galdu barik, dagoeneko hasi da aurtengo ekitaldiak prestatzen, adibidez maiatzean erretiratuei egingo dieten omenaldia.

Mertxanen aurkako epaiaren zain

Joan den asteartean, apirilak 13, egin zen Eibarren Pedro Mertxan, *Papiren*, kaleratzearen inguruko epaiketa.

Gelma enpresatik kalera-tutako mondragoetarrak kaleratzea bertan behera uztea eskatu zuen. Enpresak berriz, Mertxan bere lanpostura berandu iritsten zela egotzi zion eta horretan oinarritu zuen bere argumentazioa.

Azkenean epaiaren zain gelditu zen auzia. Hamabost bat egun barru jakingo da zertan gelditzen den urtarriaren bukaeratik luzatu den auzia.

Izan ere, eta Pedro Mertxan kaleratu zutenetik ugari izan dira berari elkartasuna adierazteko egin diren ekintzak.

ESK sindikatuak Gelma-ko hauteskunde sindikale-
ra ez aurkezteko kaleratu zute-
la baieztatu du hasiera hasie-
ratik. Hori dela eta, kalera-
tzea auzi sindikal bihurtu
zuten.

Ekintza ugari egin dira ESK, LAB, EILAS, CCOO eta Lankideak sindikatuak deitu-
ta. Kale agerraldiak, sinadu-
ra bilketak, kontzentrazioak eta
bestelakoak egin dira hiru hila-
betez.

Pedro Mertxanek, kanpaldia egin zuen Garibai kale-
an eta Aste Santuan zehar
gose greba bat egin zuen uda-
letxean. Hamalau egun egin
zituen batzar aretoan itxita
jan gabe. Baraua joan den
igandean amaitu zuen, kale
agerraldi batekin.

Hamabost egun itxaron
behar, bada, Eibarko epaile-
ak zer esaten duen jakiteko.

Oroitzapenerako irudia

Aurtengo Aberri Eguna esanahi berezia izan du. Izan ere, Euskal Herriko hiru alderdi abertzaleek, Lizarra-Garaziko akordioaren sinatzaileek, dei bateratua egin zuten eguerdiko hamabietarako. Arrasaten lehenengo aldian da urte luzeetan horrelakorik gertatzen dela. Esan beharra dago, gainera, nahikotxo jende hurbildu zela herriko plazara.



Arrasatear mordoxka elkartu zen herriko plazan Aberri Egunean.



ARRASATEKO HOTSAK TVE-N

Bad F-Line Arrasateko musika taldeak mugak zeharo apurtu ditu oraingoan. Lehenengo CD luzea Madril-en grabatu ondoren, TVE-n agertu ziren asteazken gauean, Espainia osoaren aurrean euren musika erakusten.

“ZUEKIN, ARRASATE IRRATIA!”

Azken bost urte hauetan lagun izan dugu Arrasate Irratia Mondragoe eta inguruotako etxe edo lantokietan gure herriari buruzko informazioa ematen. Gure aldetik, zorionak eta urte askotarako!



GALANTA FAMILIA!

Biztanle kopurua beherantz doala dioenak ez ditu Zeziagatarrak ezagutzen. Begira zenbat elkartu ziren elkar ezagutzeko egin zuten bazkarian: 140. Ez dira gutxi aizue! Hauek behintzat, oinordekotza ziurtatu dute.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82


TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

LORATEGIAK BABESTEN

Biribilen bueltan harritxo batzuk ipini dituztela konturatuta egongo zarete dagoeneko. Moda kontuak izango ote? Ba ez, kontatu digutenez, autoak gehiegitan igotzen omen dira biribile-tako lorategietara eta hauxe da erabakitako irtenbidea.




OPOR EMANKORRAK

Mikel Arriaran Aste Santuko oporretan majo ibili zen, argazkian ikusten denez. Sekulako arrain pare harrapatu zuen Albina inguruan. Egun horretako afaria gozoa izango zen, bai jauna!



KOLPE LATZA

Istripu ikusgarriak ikusi ohi ditugu behin baino gehiagotan. Ikusi bestela nola gelditu zen asteartean istripua izan zuen auto hau. Kanpazartik behera zetorren eta Meatzerrakako sarrera inguruan, hormaren kontra jo zuen. Zorionez, gidaria onik atera zen.



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 FPS 492/98

Gizaldi berria, kirol

Musakolako kiroldegia 22 urte bete ditu aurten. Eraiki zenetik ez du berrikuntza handirik izan. Gizaldi berriaren atarian gauden honetan, eta Arrasate handitzen joan den neurrian, kiroldegia txiki gelditu da. Horrekin batera, 70. hamarkadatik hona herritarren beharrak aldatu egin dira. Hau guztia kontuan izanda, kiroldegia egokitu eta zabaldu beharra zegoela ikusi du udalak, zerbitzu eta kirol berriak ezarriz. Hiru ataletan banatuta eta 1.200 milioi pezetako aurrekontuarekin, etorkizunerako kiroldegia egiteko lanak abian dira dagoeneko.



Kiroldegia konpontzeko lanak hasiak dira.

Lehenengo atalari dagozkion lanak, kiroldegiaren egitura goitik behera konpontzekoak alegia, egiten dabilta orain: Izan ere, hezetasunaren ondorioz, konkreta askatzen ari da. Hori dela eta, orain dagoena kendu, burdinera heldu arte; ondoren burdinak duen erdoila ere garbitu eta konkreteko geruza berriarekin estaliko da kiroldegiaren egitura.

Freissinet enpresa dabil lan hauek egiten, 105.000.000 pezetako aurrekontuarekin. Lanok, abuztu-irailerako bukatuta egongo dira.

ZERBITZU BERRIAK

Behin egitura behar bezala konponduta, kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzuak birmoldatu egingo dira. Ramon Jauregi, Musakolako kiroldegiko kudeatzailearen

esanetan, AUKEAk txosten bat aurkeztu zion udalari, premia hauek guztiak kontuan hartuta. Udaleko teknikariek, berriz, beharren arabera aurreproiektua egin zuten. Orain, Anton Pagola arkitektoa behin-betiko proiektua egiten ari da. Udara ostean, beraz, makinatxo bat lan ikusiko ditugu Musakola alde horretan, hauetxek hain zuzen ere:

- Barruko igerilekuak: egokitu egingo dira, pertsona gutxituei sarrera errazteko.

- Kanpoko igerilekuak: belarrezko eremua handitu eta igerileku olinpikoaren ur kopurua gutxitu nahi da.

- Aldagelak: berriztu egingo dira. Oraingoak handitu, kabinak aldatu, armairuak

gehitu eta emakumezkoen eta gizonezkoen aldagelak behar bezala banatuko dira.

- Jokalekuaren zorua: porlanezko zoruaren ordeztu, sintetiko jarriko da. Gauza bera egingo dute fitness aretoko zoruarekin.

- Aerobic egiteko gimnasioa: dagoena berrizteaz gain, gimnasio hau aerobic egiteko soilik erabiliko da.

- Tatamidun gimnasioa: oraingoak ongi aprobetxatzen ez den leku ugari duela eta, bi zatitan banatu eta erabiltzailerentzako beste gimnasio bat egingo da. Gimnasio berri honek, hainbat makina izango ditu ariketak egiteko.

- Masajea eta kirol medi-

kuntza: kirol medikuntza lehen solairura aldatuko da. Izan ere, orain dagoen lekuan hezetasun handia dago.

- Antoñako jokalekua: Badminton, tenisa eta antzeko kirolak egiteko moldatuko da. Institututik sartzen diren itoginak ere konponduko dira.

- Pilotalekuak: pilotaleku berria egiten ari direnez, dauden bi pilotalekuetatik bat beste kirolen bat egiteko erabil liteke, hala nola irristatzeko pista, urrutiko kontroler gidatutako autoentzako pista... Honetaz gain, pilotalekuek dituzten itoginak konponduko dira.

- Tenis pista: estali egingo da, edozein eguraldiarekin erabili ahal izateko.


Kiroldegi berria

• Gorputzaren zaintza: orain sauna dago soilik; asmoa da lurrun bainua, hidromasajea, dutxa hotz-beroa... eta antzeko zerbitzuak eskaintzea.

ERRONKA NAGUSIA

Hau ez da guztia, ordea. Kiroldegiak beste erronka bati egin beharko dio aurre. Herriko kirolarien beharrek eraikuntza berriak eskatzen dituzte. Jose Mari Loiti alkatearen esanetan, herriko kirol talde guztiekin berbetan ibili da, Arrasateko Udala premia hauek zeintzuk diren jakiteko. Eskatera guztiak aztertuta, behar gehien dituztenenak asetzera erabaki da.

Honela bada, nabarmen handituko da kiroldegi ingurua. Honen adierazle da orain egiten ari diren Antoñako saihebidia, kiroldegi zaharberriaren bueltan joango dena. ■



Ubane Madera

Honelako itxura izango du kiroldegi berriak.

Egingo diren eraikuntza berriak



1- ERRUGBI ZELAIA

Garagartzako zelaiaren egoera benetan kaskarra da. Hori dela eta, orain kanpoko pista dauden tokian errugbi zelaia egingo da.



2- BELODROMOA

Txirrinduzaleen aspaldiko eskaria. 250 metroko barne perimetrea izango du belodromo berriak.



3- FUTBOL ZELAIA

Lekuz aldatuko da, kanpoko atletismoko pisten barruan ezarriz. Belar artifizialeko futbol zelaia egingo da.



4- ATLETISMOKO PISTAK

Atletismo taldean ari den jende kopuru handia eta lortu dituzten emaitza onak kon-

tuan hartu dira pista hauen eraikuntza erabakitze orduan. Atletismo pista futbol zelai berria inguratuko du.



5- ATSEDEN LEKUA

Kiroldegiko taberna kendu zenetik, mota honetako zerbitzu baten beharra somatu da. Zenbait mahai edukiko dituen toki bat ipintzea pentsatu da. Hantxe, janari eta

edari makinak jarriko dira, kirola egin ostean indarra berreskuratzeko mokautxoren bat edo jan nahi duenarentzat. Honetaz gain, kirol taldeek toki bat izango dute kiroldegian bilerak egiteko. 50 pertsonarentzako hitzaldi areto bat ere sartuko da. Egitura berri hauek erabat aldatuko dute herriko kirol eskaintza.

Bakailo Etxea, bakailao gozoa

Joanak dira Ternuako bakailaoa jaten genuen garaiak. Bakailo Etxean saltzen dena, adibidez, Islandiako itsasotetan du jatorria. Harrapatu, zatitu, umotu eta handik 40 egunera, hementxe dago, Arrasaten, nahi duenak nahi duen eran jateko prest.

Juan Antonio Doyague eta Eguzkiñe Loiti senar-emazteak orain hamasei urte hasi ziren negozio honetan. Biak lanik barik zeuden eta, familian entzundako iradokizun bat zela eta, bakailao etxe bat jartzea erabaki zuten. Bilbora joan, bakailaoa umotzen ikasi, kreditu bat eskatu eta Arrasatera etorri ziren.

Hasiera gogorra izan zuten. Izan ere, Arrasateko jendea ez zegoen ohituta bakailao erdi umotua jaten. "Bakailaoa sendeoa eta sikua, eskatzen zigun jende gehienak", dio Juan Antoniok, "hori baitzen bakailaorik merkeena. Guk, berriz, kalitateko bakailaoaren alde egin genuen apustu, nahiz eta garestiagoa izan". Kostata, baina azkenean badi-rudi mondragoetarrok ohitu



Juan Antonio Doyague lanean.

egin garela era horretako bakailaoa jatera.

ESKAINTZA ZABALA

Bakailaoa modu askotan saltzen dute. Alde batetik, beratuta. Bakailaoa uretan edukitzen dute bizpahiru egunean, gazitasuna kentzeko. Nagusiek batez ere bakailao hau erosten dute, zatitan.

Gazteek, ostera, nahiago izaten dute bakailaoa prestatua: saltsa berdean, kokotxa eta txirlekin, club Ranero erara, Piquillo piperren saltsarekin, piper gorrien eta berdeen saltsan, pil-pilean, Bizkaiko erara, saltsa berdean, etab., etab. Arrakasta handien duen platera Piquillo piperren saltsan egindakoa da.

Noiz jaten da bakailao gehien? "Azaroan, abenduan eta urtarrilean, hotz egiten duen hiletan jaten da gehien". Garizuman ere gorakada nabaritzen dute.

Beltz ikusten dute bakailaoaren geroa, geroz eta urriagoa delako. "Guk bakailaoa beratua eta prestatua eskaintzen segituko dugu".



ESKER ONA

1999ko apirilaren 12an hil zen

MIGEL MARI IRIZAR

Bere alargunak eta seme-alabek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak, eta hileta elizkizunetara agertu izana.

PRESTA ZAITEZ!

Orain udako eguzkirako presta dezakezu zeure azala, solarium sistema puntakoenarekin: SUNCAB zutikako kabinak.

Beltzaran jartzeko sistema egokia eskaintzen dizugu:

- Guztiz higienikoa
- Lasterragoa
- Biziagoa
- Erosoagoa
- Bero gutxiago

Segurua. Higienikoa. Erosoa. Lasterra.



Aurpegi eman udari!



Uribarri, 12
Tel.: 943 77 00 67

BETI ONA
Gimnasioa

*Zabaldu
berria!!*

udalaitz

A R R A S A T E

erdiko kale 42 • arrasate
tel.: 943 77 00 68

Esther Altuna / Hiritik herrira

Arrasaten soralezetar ugari ibili da betidanik eta orain ere halaxe da. Lanean, bizitzan edo ikasten 100 inguru daudela kalkulatzeko da. Baina, gutxi badira ere, bada- go Soraluzen bizi den arrasatearrik ere.

Hauxe da Esther Altunaren kasua. 46 urteko andrakume hau 1982an joan zen Soraluzerantz. Gizona hangoa topatu eta hantxe bizi da harrezkero. Han nola dabilen jakin nahi eta hau- xe kontatu digu:

— Zein da Arrasate eta Soarluzeren artean somatu zenuen desberdintasunik nabarmenena?

— Soraluzen jende guztiak agurtzen zaitu. Hemen guztiok ezagutzen dugu elkar gutxi gorabehera. Auzobaten antzekoa da. Ondorioz, bizitzeko ere Arrasate baino lasaiagoa da.

— Zaila izan zen zuretzat herri berrira moldatzea?

— Ba ez, niretzat ez zen zaila izan. Egia esan, ni oso erraz moldatu naiz betidanik egoera eta leku berrietara. Orduan ez zitzaidan asko kostatu.

— Hartu zaituen herri horretatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

— Giro polita dago Soraluzen. Gainera, jendea oso atsegina da.

— Baina ziur jaioteritik baduzula zerbait faltan...

— Senitartekoak, batez ere.

— Maiz joaten zara Arrasatera?

— Noizean behin joaten naiz. Denborarekin gero eta gutxiago, baina ahaleginak egiten ditut. Badaude egun batzuk inoiz galdu ez ditudanak, Maritxu Kajoi, adibidez.

Honetaz gain, familiarekin harreman sendoa gorde- tzen dut. Anai-arrebak ni ikustera datoz edo ni noa

hara, bazkariak egiten ditugu, eta horrela.

— Arrasateko ohiturak gordetzen dituzu Soraluzen?

— Gorde nahiko nituzke, baina ez dut egiten. Pentsa, oraindik aurtengo karapaixoa zor diet nire besoetakoiei...

— Aukera bazenu, itzuliko zinake Arrasatera bizitzera?

— Bai. Niri Arrasate asko gustatzen zait. Gainera, ni Soraluze- ra etorri nintzenetik asko aldatu da. Hiri handia da orain, eta oso polita, gainera.

Hori bai, Arrasate minik ez dut. Soraluzen oso gustura nago eta horrek asko laguntzen du.



“Egun batzuk ez ditut inoiz ahaztu, Maritxu Kajoi, adibidez.”

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE


“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57



Merezitako oporrak?

AC Surkos eta Pepelus taldeen arteko azken partida gogorra izan zen. Batzuek lurrean botata amaitu zuten. Hori dela eta, opor luzeak egin dituzte Zaldibarko jokalariek. Baina asteburu honetan berriz ekingo diote txapelketari.

Laburrak

■ PARTIDA INTERESGARRIAK

Aste honetan jokatuko diren partiden artean hiru ditugu aipagarriak. Potroak-Aldibi, Irati STS-Branka Taberna, Insert Coin-EPEH. Izan ere, sei talde hauen arteko lehiak ikusmina piztu du. Potroak eta Aldibi taldeak, lehenengo eta

bigarren dira B taldean. Puntu bakarreko aldea daukate. Hori dela eta, lehia handiko partida izango da, iazko irabazleek eta Potroak taldekoek jokatuko dutena.

Irati STS eta Branka Tabernari dagokienez, partida irabazteko grina bera izango dute. Jardunaldi honetan irabaziz

gero, sailkapenean goian gelditzea esa nahi du eta.

■ HIL EDO BIZIKO PARTIDAK

Hirugarren aldirako txartela lortzeko zortzi edo bederatzita puntu behar dira. Aste honetan badira hil edo biziko partidak ere. Jotakabau eta Leya

taldeek gogor ekin beharko diote garaipena eskuratu nahi badute. Egoera berean daude Fraguel Gol eta You Know. D taldean Kamasutra aipatu behar da eta E taldean Saukaleu Scream. Honi liderraren aurka, Naranja Mecanicaren aurka, jokatzeko tokatzen zaio.

Hurrengo partidak

Datozen jardunaldiak

2.aldia 3. jardunaldia

Apirilak 17, Larunbata Zaldibar

08:50 Txantxi. Kirolak - Koma. Alpargat
10:00 Jotakabau - Leya
11:00 Aita Menni - Dribling
12:00 Potroak - Aldibi
13:00 Naranja Mec. - Saukaleu Scream
14:00 DKB - KKJauri
15:00 AC Surkos - AT Celaya
16:00 Lontxo Taberna - Kamasutra
17:00 Irati STS - Branka Taberna
18:00 Insert Coin - EPEH
19:00 Garaja Oscar - Koka Juniors

Apirilak 18, Igandea Zaldibar

09:50 Totem - Sokoakoak
11:00 You Know - Fraguel Gol
12:00 Diego Antonio - Xhasss Ugarte
13:00 Aurrera Bolie - Pepelus

Atsedena: E taldea: Orlando Piratas

5. jardunaldia

A taldea

Txantxi Kir. - Jotakabau
Aita Menni - Branka Tab.
Irati STS - Dribling
Leya - Kom. Alpargat

B taldea

You Know - Garaje Oscar
DKB - Aldibi
Petroak - KKJauri
Koka Juniors - Fraguel Gol

D taldea

AC Surkos - Aurrera Bolie
Diego Antonio - Kamasutra
Lontxo Tab. - Xhasss Ugarte
Pepelus - AT Celaya

E taldea

Orlando Pir. - Totem
Insert Coin - Saukaleu Scream
Naranja Mec. - EPEH
Sokoakoak - Ke Oxtias!!!

6. jardunaldia

A taldea

Txantxi Kir. - Aita Menni
Jotakabau - Branka Tab.
Irati STS - Leya
Kom. Alpargat - Dribling

B taldea

You Know - DKB
Garaje Oscar - Aldibi
Petroak - Koka Juniors
Fraguel Gol - KKJauri

D taldea

AC Surkos - Diego Antonio
Aurrera Bolie - Kamasutra
Lontxo Tab. - Pepelus
AT Celaya - Xhasss Ugarte

E taldea

Orlando Pir. - Insert Coin
Totem - Saukaleu
Naranja Mec. - Sokoakoak
Ke Oxtias - EPEH

7. jardunaldia

A taldea

Txantxi Kir. - Irati STS
Dribling - Jotabau
Aita Menni - Leya
Kom. Alpargat - Branka Tab.

B taldea

You Know - Potroak
KKJauri - Garaje Oscar
DKB - Koka Juniors
Fraguel Gol - Aldibi

D taldea

AC Surkos - Lontxo Tab.
Xhasss Ugarte - Aurrera Bolie
Diego Antonio - Pepelus
AT Celaya - Kamasutra

E taldea

Orlando Pir. - Naranja Mec.
EPEH - Totem
Insert Coin - Sokoakoak
Ke Oxtias - Saukaleu

Gorlako txakur leren txapelketan irabazlea

ITOIZ ARMENDARIZ

"Txakur on batek milioi erditik gora balio du"

— **Pulkas mailan lehen saria Gorlan. Zer da hori?**

— Bat-bi txakurrek katairik gabeko mendiko bizikleta batetik tiraka doaz. Indarraren %80 txakurrek egiten dute; bestea norberak. Hala ere, Gorlako probak aldapa askotxo dauka.

— **Gorlatik Pirena lasterketara, beraz?**

— Horretarako diru asko behar da. Izena emateak 150.000 pta balio du. Baina polita izan behar da.

— **Noiz hasi zinen kirol hau egiten?**

— Orain dela lau urte. Orduan Gorlan izan nintzen.

— **Nola dute izena zure txakurrek?**

— *Gar* eta *Ipar*, biak huskyak, baina *Iparrek* eten bat izan zuen entrenatzen. Iban Guridik txakur bat laga zidan, *Panka*. Nire lehenengo txakurra berak saldu zidan. Lehenengo lasterketara berarekin izan nintzen.

— **Garestia da?**


— Jendeak ezetz dio, baina nik bi txakur baino gehiago ezin dut eduki. Jendeak babesleak izaten ditu lasterketetan aritzeko. Txakur on batek milioi erditik gora balio du.

— **Lan handia eskatzen dute?**

— Egunero atera behar dituzu. Urria arte beroa egiten duenez, ezingo naiz ibili.

— **Euskaraz egiten diezu txakurrei?**

— Bai, baina ezkerre eta eskuma, inuiteraz: *hab* eta *gee*.



SASKIBALOIA Beharrak eraginda



Kenci-Arrasate saskibaloitaldeak behar zuen garaipena eskuratu zuen larunbatean

Errioxako David Moreno taldearen aurka. Igoera ligaska amaitzeko hiru norgehiagoka gelditzen dira. Lehen zatian jokoa nahiko berdinduta egon zen. Bigarren zatian etxekoak animatu eta 60na berdindu ostean, errioxarrak gainditzea lortu zuten. Aipatzeak etxeko taldeko Aiala eta Basurkoren saskiratzeak. Mondragoetarek 73 eta 60 irabazi zuten. Aste honetan Bilbora abiatuko dira. Hantxe Torregi La Peña taldearen aurka neurtu beharko dira. Bilbotarrek bi puntu gehiago dituzte. Joan den astean, gainera, galdu egin zuten. Beraz, etxean irabazi nahiko dute.

puntuak eraman zituzten. Mondragoetarrei zortzi jardunaldi gelditzen zaizkie. Asteburu honetan derbia izango da Bergararen aurka. Bergarak galdu egin zuen asteburuan. Lehen tokia galdu zuenez, horixe berreskuratzen saiatuko da. Partida interesgarria, beraz.

Aipatzekoa lehen urteko haur mailako futbolarien lana. Joan den larunbatean Legazpin 1 eta 4 irabazi zuten igotera partidan eta jadanik lehen tokian daude sailkapenean. Asteburu honetan lehen aldiko azken norgehiagoka izango dute, Mutrikuren aurka.

TXIRRINDULARITZA Jon Lete hirugarren



Infantil mailako Arrasate Kirolak taldeko Jon Lete hirugarren izan zen

joan den asteburuan Elgoibarren jokotutako lasterketan. Lehen eta bigarren urteko infantilak aritu ziren zirkuitu itxi baten inguruan eta 12 itzuliren ostean, Iberdrola taldeko Daniel Maestro nagusitu zen. Jon Lete mondragoetarra, berriz, hirugarren izan zen. Larunbatean Aretxabaletan arituko dira, industrialdean prestatutako zirkuitu itxi batean, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Born Jayko Josu Mendizabal, Aitor Larrea, David Sojo, Ramon Gartzia, Jon del Rio, Antonio Urmeneta eta Ruben Gonzalez afizionatuak Granadako itzulian ari dira asteazkena ezkeror.

FUTBOLA Berriz ere ezinean



Aste Santuko oporraldiaren ostean, etxean jokatu zuten prefereente mailako Mondrakoe, Beti Ona taldearen aurka. Oraingoan ere teoria hutsean gelditu zen irabaztearena. Bisitariak irabazten hasi ziren. Bigarren zatian Oxel Apraizek berdinketa lortu zuen. Azkenean, ordea, Beti Onak taldeko Jonek bigarren gola lortu zuen eta hiru

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**Geriatría edo klinika laguntzaile
tituludun langileak behar dira.**

Lanean aritu izana kontuan hartuko da.
Bidali Curriculumuma helbide honetara:

ATSEDEN 23 Posta kutxa
20500 ARRASATE

Izerdia Ertamerikaren alde


Lirain emakumeentzako gimnasioak "Ertamerikaren aldeko 1. Aerobitoia" antolatu du. Datorren larunbatean izango da, Iturripeko kiroldegian. Batuko den dirua Mugarik Gabeko Ingeniariak, Gobernu Kanpoko Erakundearentzat (GKE), izango da.

"Mugi zaitez Ertamerikaren alde". Horrela animatu nahi izan dituzte Lirain gimnasioko arduradunek aerobic zaleak. Bederatzi begirale arituko dira Iturripeko kiroldegiko taula gainean. Lirain gimnasioko monitoreez gain, Bea, Māri Karmen, Mertxe eta Manu, Gasteizko Gorka eta Silvia, Arrasateko Kiroldegiko Amalur eta Olga eta Aretxabaletako kirol etxeko Pili arituko dira hiru orduz saioa zuzentzen.

Manu Fernandezek aditzera eman digunez, berotze ariketen ostean, bost koreografia prestatu dituzte larunbaterako. "Oso errazak izango dira, helburua Ertamerikaren aldeko dirua batzeaz gain, ondo pasatzea da eta". Koreografia bakoitza ordu erdikoa izango da. Azkenengoak funky erritmoa izango du. Hau Silbiak gidatuko du.

ELKARTASUNA ABIAPUNTU

Orain dela bost hilabete ireki zen gimnasioko arduradunek kalera begira egiten duten



Ertamerikaren aldeko 1. Aerobitoia 16:00etan hasiko da Iturripen.

lehenengo aerobic maratonia izango da larunbatekoa. Nahiz eta Gabonetan ere beste aerobitoi bat egin zuten, baina orduan bazkideentzako bakarrik izan zen. Oraingoan, ordea, erabat zabala den egitasmoa bultzatu dute eta horretarako arrazoi berezia izatea nahi izan dute.

Mugarik Gabeko Ingeniariak GKEekin harremanetan jarri ziren. Izan ere, maratonia jasotzen den dirua Mitch urakanak eragindako kalteei aurre egiteko erabiliko dute. Nicaraguako Ocotol eta Sauce herrietan etxebizitzak eta ur putzuak eraikitzen ari dira GKE honetako kideak. Horregatik aerobitoian parte hartu

nahi ez dutenek ere laguntzeko aukera izango dute. Horretarako "0 dortsala" formula ezarri dute. Kontua da Kutxako kontu korronte batean nahi den diru kopurua sartzea.

Zenbakia honako hau da: 2101 0123 98 0010820694. Diru guztia GKEk gestionatuko du.

IZEN EMATEA

Aerobiton honetan parte hartu nahi dutenek Iturripeko kiroldegian eman beharko dute izena, larunbatean bertan. 1.000 pta kostako da. Izena emandakoan elastiko bana jasoko dute partehartzaileek.

Elkartasun aerobitoi hau ikusi nahi duenak izango du

paradarik. Sarrera 350 pta kostako da eta, hori ere Ertamerikaren alde. Horrezaz gain, sarrera ordaintzen dutenek zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek arrakasta izatea espero dute. Alberto Garrok adierazi bezala, "Lirainen 200 lagun ari dira aerobic egiten gaur egun eta herrian askoz ere gehiago dira kirol hau egiten dutenak. Gainera, kontuan izanda jasotzen den dirua Mitch urakanak eragindako kaltetuentzat izango dela, jendea animatzea espero dugu".

Saioa 16:00etan hasiko da eta 19:00ak arte iraungo du, Iturripeko kiroldegian.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratarera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

EDURNE ERAUSKIN (SFX IKASTOLAKO ZUZENDARIA)

“Erronka berriak hartu nahi

Izatez donostiarra da Edurne Erauskin. Pedagogia ikasketak Salamancan egin zituen, eta bukatu bezain laster Umezaintzan hasi zen lanean. Orain San Frantzisko Xabier ikastolako zuzendaria da, baina maiatzean utziko du lan hori, hamalau urteren ondoren. Bide berriak jorratu nahi ditu.

— Izatez donostiarra zara. Zerk ekarri zintuen Arrasatera?

— Pedagogia ikasketak Salamancan bukatu ondoren, Mirandara joan nintzen, han bainean mutila. Han nengoela aitona iragarki bat bidali zidan, Umezaintzan pedagogogo bat behar zela esaten zuena. Euskaraz ez nekien arren, animatu egin nintzen, eta orduanik hemen nago.

— Urte asko egin duzu hezkuntza arloan. Nola aldatu da Arrasateko hezkuntza urte hauetan?

— Batez ere euskalduntze prozesua azpimarratuko nuke. San Frantzisko Xabier ikastolak epe luzerako plan bat egin zuen Umezaintzarekin batera, bost urteko epean Arrasaten eskolaratzen ziren haurren %75 bere baitan hartzeko helburuarekin. Erronka hori erabat bete zen. Zentzu horretan, euskalduntze prozesuak lastertasun handia izan du Arrasaten, eta gure ikastolak zeresan handia izan du horretan. Horren ostean B ereduaren ezarpena etorri zen, eta horretan aitzindaria izan zen SFX. Gero B ereduak planteatzen

zuen ez zela nahikoa ikusi genuen, eta Irakasle Eskolarekin batera, beste plangintza bat eraman zen aurrera. Gaur egun, ikastolaratzen diren haur guztiak eredu euskaldunetan ari dira.

— Hezibideren proiektuaren barne dauden ikastolak batzear daudela utziko duzu zuzendaritza.

Horren ondorio da?

— Ezta inola ere. Nire bizitza profesionalen beste erronka batzuk izan nahi ditut, eta beste

esparru batzuk jorratu. Hezibiden SFX, San Viator, Umezaintza eta Almen ikastolok egiten ari garena oso erabaki garrantzitsua eta egokia iruditzen zait, eta proiektu horri nire laguntza eskainiko diot.

— Umezaintzako zuzendari ere izana zara. Bi ikastetxeetako esperientziak parekagarriak dira?

— Zuzendari moduan duzun erantzukizuna handia da bietan, baina tamainak berezitasun jakina ematen dio SFXi.

— Zuzendari lanetan egin-dako urte guztietan, zein izan da momenturik latzena?

— Askotan emaitzak jakin gabe erabakiak hartu behar dira nahitaez, eta arrisku horretan norbere burua jarri beharra gogorra da. Baina, erabakietan asmatzean, erabat asetzen zara. Euskal Eskola Publikoaren legearen barruan bizi izan genuen esperientzia ere oso gogorra izan zen. Batetik,



“Euskalduntze prozesuak lastertasun handia izan du Arrasaten, eta gure ikastolak zeresan handia izan du horretan”

ahi ditut neure gain”

ikastolek betidanik izan dute izaera publikoa, herriak sortutako hezkuntza ereduak baitira. Beraz, gure burua publikotzat jo dugu beti. Bestetik, askok uste genuen administrazioak eskaintzen zigun ereduak ez ziela erantzuten gure ezaugarriari. Hor ikuspegi ezberdinak uztartzea zaila izan zen, kolektibo ezberdinetan hainbat iritzi baitzeuden. Orduan jabetu nintzen ikastolek Arrasaten duten pisuaz.

— **Ikastolek badute ikastetxe publikoek ez daukatenik?**

— Nik uste dut baietz, eta hori izan zen arrazoi bat ikastola moduan segitzeko. Ikastolok eredu propio bat dugu, momentu batean legeen bidez batzuek desagertarazi nahi izan zutena.

— **Askok “ikastolakumeen” euskara kalitate eskasa aipatzen dute. Zer iritzi duzu horri buruz?**

— Ez dut uste “ikastolakumeen” arazoa soilik denik. Gizarteak duen euskara maila ez da kalitate onekoa, eta azterketa horretara heltzea garrantzitsua da. Orain arte

kantitateari begira geunden, eta orain kalitatea zaindu behar dugu.

— **Hezibideko ikastolen bategiteak zein ondorio ekarriko ditu?**

— Gure ereduak hobetu nahi dugu, ikastola moduan dauzkagun berezitasunak indartuz. Bestalde, beste esparru batzuetara zabaldu nahi dugu, gizarteak beharrei eta aukerei egokiago erantzuteko.

— **SFXk zein erronka dituetorkizunerara begira?**

— Hezibideren proiektua

aurrera eramateko behar duen guztia mahai gainean jarri eta indar guztiak horretara bideratuko ditu. Aurrez planteatutako helburuak lortu nahi ditugu.

— **Eta zuk zein proiektu dituzu?**

— Erronka berriak hartu nahi ditut neure gain. Aholkularitza enpresa bat osatu dugu, batez ere prestakuntzara bideratuko dena. Irakaskuntza arloan oinarrituko gara, eta zehazki zuzendaritza taldeentzako prestakuntza eskaintzak egingo ditugu. ■

body piercing

Tatuajeak

zarrapak

arrasate Mondragón

Totem

943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE

“Arrasate ikastola”ren anagrama lehiaketa

SFX eta San Viator ikastolek anagrama diseinu lehiaketa antolatu dute, bi ikastetxeen bategitea dela eta. Izan ere, SFX, San Viator, Almen eta Umezaintzako ikastolek bat egingo dute, Arizmendi izeneko hezkuntza proiektua aurrera eramateko.



BI KOLORE

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak: bi kolore izan behar ditu eta sinboloaren batera “Arrasateko ikastola” testua agertu behar da. Bestalde, anagramak Mondrago-erekin identifikatzen den elementuren bat ere izan behar du. Anagramaren tamaina,

Maiatzaren 3a arte egongo da zabalik lanak aurkezteko epea.

letra mota, koloreak eta gainontzeko elementuak egileak hautatu ahal izango ditu.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 3an bukatuko da, Lan bakoitza kartazal itxi batean aurkeztu behar da, San Viator edo SFX ikastolan.

Sobre horretan parte hartzaileak bere izen eta datu guztiak agertuko ditu.

Epaimahaikideen izenak irabazlea nor den erabakitzen den egunean ezagutaraziko dira, eta irabazleak 100.000 pta.ko saria jasoko du.

“Arrasate 98” lehiaketetako saridunak

Ehun eta hirurogei lan jaso dituzte “Arrasate 98” lehiaketetako antolatzaileek. Dagoeneko epaimahaikideek jakinarazi dute finalisten zerrenda. Ipuin arloan Oier Zabaleta, Garazi Oihanguren, Oihan Zubizarreta, Leire Bedia, Janire Bolinaga, Maitane Madinabeitia, Maialen Aranegi eta Manex Agirre izango dira saridunak. Olerkien sailean Joana Iglesias, Itziar Osa, Ainhoa Garai, Manex Agirre, Jon Aiestui eta Maider Osa. Bertso paper lehiaketan Maitane Mazmela, Itziar Osa eta Ane Zabala. Komikien arloan Naia-ra Arizabaleta, Harkaitz Jauregi, Rakel Grille, Iban Galan, Maurio de la Torre, Jon Gonzalez, Jon Aiestui eta Mikel Fernandez de Arroiabe. Euskalkien grabazioetan Saioa Ibarguren izango da saritu bakarra, eta irrati erreportajetan, berriz, Ainhoa Martin, Miren Igartua eta Alaine Altube.

Sari banaketa apirilaren 23an izango da, 18:00etan, Monterron jauregian. Zorionak, bada, irabazle guztiei!

Gaztetxetik: “Denbora agortzen ari da”

“Gaztetxetik” Arrasateko gaztetxeko aldizkariak atera du bigarren zenbakia. “Denbora agortzen ari da. Elekzioen ostean... desalojorik ez!” izenburua du.

Beste gauza batzuen artean Gaztetxearen VIII urteurrena ospatzeko antolatu diren ekin-

tzen berri ematen dute bertan.

Hainbat erakusketa ireki dituzte Gaztetxean eta astelehenean ere gaztetxearen historiaren inguruko bat irekiko dute. Inguruko gaztetxeekin elkartzeko asmoa ere badute AGAKOko kideek. Hori datoren ostiralean izango da, arra-

tsaldeko 19:00etan. Gaztetxearen inguruko mahai ingurua egingo dute eta ondoren Hyssopus taldeak kontzertua eskainiko du gaueko 22:30ean. Horrez gain, herri bazkaria egingo da apirilaren 24an. Beraz, adi txartelak erosteko!

HITZALDIAK

■ Inausketa

Apirilaren 21ean
Arratsaldeko 17:00etan

■ Baratza eta frutarbolak

Maiatzaren 19an
Arratsaldeko 17:00etan

Gesalibarko Jentil-Ola elkartean

Antolatzailea:



Babeslea:




ARRASATEKO UDALA

Emakume saila ■

Jakoba Errekondo





Bixente Barandiaran.



Gaztetxean egindako afari bat.

Bixente Barandiaran Aurrez-aurre saioan

Karmele Zuazubiskarrek aurkezten duen Aurrez-aurre saioan aste honetan Bixente Barandiaran izango da, asteazkenean 21:30etan. Bixente gaur egun erretiratuta dagoen arren, makina bat urtean aritu da olagizon eta perratzaile gisa lanean. Bi lanbide hauek desagertzeaz daukela eta, udalak diru laguntza

txiki bat eman zion Bixenteri perratoki bat jartzeko.

GAZTETXEAK 8 URTE

Aste Santuko oporraldiaren ostean, aste honetan Gaztetxearen VIII urteurrena dela eta, Gaztetxeko kide bat izango da Kaleidoskopio saioan, antolatu dituzten ekitaldi guz-

tien berri emateko gertu.

Literatura txokoan Liburuaren Egunaren berri ere izango dugu. Izan ere, datorren ostiralean, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Egun da. Literaturarekin segituz, AEDk antolatutako literatura sariaren irabazleak zeintzuk izango diren jakiteko parada

ere izango da, primizia mundialean. Bukatzeko, Mikel Markezek eta Pako Aristik eskaintako errezitaldiaren zatitxo bat ere izango dugu ikusgai. Bi artista hauek Montterronen arituko dira apirilaren 20an. Beraz, piztu ezazu ATB gaueko 21:30ea. Ez zara damutuko eta!

■ ATBren programazioa

| LARUNBATA, 17 | ASTELEHENA, 19 | ASTEARTEA, 20 | ASTEAZKENA, 21 | OSTEGUNA, 22 | OSTIRALA, 23 |
|--|--|--|---|---|---|
| 13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete. | 13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Astebete (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepassoa. | 13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Mondrasport (errepika). 19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen programa. 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30: Munduari bueltaka. | 13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Munduari bueltaka. 20:00/20:30/ Berriak. 21:30 Aurrez-aurre | 13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Aurrez Aurre (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak. 21:30 Kaleidoskopioa. | 13:30 Albiste aurrerapena. 13:35 Kaleidoskopioa (errepika). 20:00/20:30/21:00 Berriak 21:30 Astebete. Asteazkenean gertatu diren berri garrantzitsuenen errepassoa, Maider Osak aurkeztuta. 22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok azken orduko bideoklipak aurkeztuko ditu. |
| IGANDEA, 18 | | | | | |
| 13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika: Jolasplast, Musiklasik, Mahai ingurua, Kaleidoskopioa, Soinuz Blai eta Astebete. | | | | | |
| | | |  |  | |
| | | | Karmele Zuazubiskar. | Edu Abasolo. | |

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxebizitza salgai Elorregi auzoan, Bergaran. Tel.: 943 76 07 47.
- Etxebizitza salgai. Erdialdean dago, Monterron ondoan. Osorik berrizteko. Oso merke. Tel.: 94 445 96 19.
- Etxe bat salgai: bi gela, sukaldea, gas naturaleko berogailua, komuna eta egongelarekin. 55 m². Tel.: 943 77 02 06.

2. Erosi

- Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 20 35 12.

3. Errentan emateko

- Etxebizitzak eta bungalowak alokagai Oropesan Aste Santu, uztail, abuztu eta irailerako. Interesatuak deitu 964 31 27 34 telefonora. M^a Angeles Elizondo.
- Apartamentua alokagai Torreveijan. Erabat horniturik dago, eremu residentzial batean, igerileku eta guzti. Abuztuan eguneko 8.000 pta. Hamabost egunerako edo hil osorako. Tel.: 943 79 53 18.
- Arrasateko erdi aldean etxebizitza txiki bat alokatzen da. Tel.: 943 72 46 17 (deitu 18:00etatik 22:00etara).
- Gela bat daukat alokatzeko erdialdean. Tel.: 943 79 68 00

4. Errentan hartzeko

- Bikoteak etxebizitza alokatuko luke. Tel.: 943 65 45 40 / 943 72 30 25 (20:00etatik 22:00etara).
- Etxebizitza nahi dugu alokatu, Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 447 04 61

5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu Aramaion. Tel.: 617 600 265 (bertan mezua laga).
- Logela baten bila nabil etxebizitza partekatu batean. Tel.: 943 42 98 19 (Noel).
- Pertsona euskalduna behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Tel.: 943 85 04 86.
- Etxebizitza osatzeko laguna behar da, Jauregi-barri kalean (Erguin). Tel.:

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

943 79 27 64 (gauez).

- Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

GARAJEAK

7. Saldu

- Garajea salgai Kontzezinon. Tel.: 943 79 54 07.
- Garajea salgai. Bi autorentzako lekua du. 40m². Aldai kalean. Tel.: 945 46 14 78.

9. Errentan emateko

- Garaje itxia alokatzeko, Uribarri Etorbidean. Tel.: 943 79 35 24.

10. Errentan hartzeko

- Garaje bat alokatuko nuke Musakola aldean. Tel.: 943 79 21 46.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Lanean dabilen negozioa eskuz aldatuko nuke. Tel.: 943 79 47 85.
- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko bi solairu dituen tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.
- 60 m² zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegia eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitarte 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

14. Errentan emateko

- Uribarri etorbidean 90 m²ko tokia alokagai. Tel.: 943 79 75 37 (Iluntzeko 20:00etatik aurrera).
- Lanean dabilen taberna alokatzen da Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81.
- Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m² ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gaueko 21:00etatik aurrera).

15. Errentan hartzeko

- Gazte talde batek toki bat alokatu nahiko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 40 65 (Maitane).
- Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintza

- Zazpi urteko esperientziaduna lan egiteko prest jatekx edo taberna batean zerbitzari bezala. Tel.: 943 77 08 13.
- Neska bat behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 73 82.
- Ingeles eta frantsesezko itzulpenak egiten ditugu. Merke eta azkar. Tokiko profesionalak. Tel.: 943 77 18 23.
- Andra euskalduna behar da pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 07 73.
- Neska arduratsua umeak zainduko litzuke. Deitu goizetan edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera 943 71 53 74 telefonora.

- Esperientziadun neska prest dago egun erdiz bulegoko lanak egiteko. Tel.: 943 79 77 41. 20:00etatik aurrera. Kontxi.

- Andra euskalduna prest etxeko lanak egin, umeak zaindu edo jende heldua zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

18. Eskaerak

- Esperientzia duen andra behar da pertsona nagusi bat zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.
- Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 07 33 telefonora.
- Pertsona bat behar da taberna bateko garbitasun lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.
- Pertsona bat behar da taberna batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 50 86.
- Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko, esperientziaduna (18:00etatik 21:00etara). Tel.: 606 54 93 29. Jesus.
- Pertsona bat behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Esperientzia ez da beharrezkoa. Hilero bi aste-buru eta bi larunbat gauez. Tel.: 943

78 22 10. Jasone.

- Emakume euskaldun arduratsua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 05 77.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Margolaritza eskolak ematen dituzte, marrazki artistiko eta olio estiloetan. Tel.: 943 79 19 23.

21. Eskaerak

- Alemanierako eskolak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 24 18. Amaia.

MOTORRA

23. Saldu

- Citroen Xara 1.600 salgai. 90 cv. Gasolina. Matrikula: SS-AZ. Tel.: 610 64 52 04 (18:00etatik aurrera).

- Ford Escort RS-Turbo, estrarekin, salgai. Matrikula: SS-AG. Tel.: 639 38 87 77

- Renault Super 5 zuria SS-AB salgai. Oso egoera onean eta prezio inter-

resgarrian. Tel.: 943 79 68 75.

- Opel Corsa GSI (VI - K) salgai. Tel.: 609 28 65 82 (20:00etatik aurrera).

- Ford Courier 1.800 diesel salgai. Matrikula: SS-AN. Deitu 943 79 82 09 telefonora.

DENETARIK

26. Saldu

- Egongelako mahaia salgai. Berria. 1m. luze, 0,5m. zabal eta 40 cm. garaikoa. Prezioa: 25.000-30.000 pta.. Tel.: 943 77 16 45 (deitu goizean edo gaueko 22:30etatik aurrera. Ostiraletan egun osoan).

- Yamaha piano elektrikoa eta clavinova salgai. CLP - 153 S. Hiru urteko bermearrekin. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 79 89 57 (Gaueko 20:00etatik 22:00etara).

- Macintosh II Ci ordenagailua salgai. 60.000 pta. Tel.: 943 79 71 59 / 943 64 08 57. Gaeuz.

- Mendiko bizikleta salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 77 03. Jonathan (21:30etatik aurrera).

- Hiru logelako altzari guztiak salgai. Tresillo, sukalde eta hozkailua ere

bai. Oso merke. Tel.: 943 79 74 33.

- Ehiza txakurrak salgai (setter ingelesak). Interesatuak deitu 943 71 48 90 telefonora 13:00etatik 15:00etara. Emilio.

- 270 litroko kutxa izoztailea salgai, berria, 25.000 pta.tan. Tel.: 943 79 55 28

- 27 liburukiz osatutako entziklopedia berriztatua. BBB, (FP) eta unibertsitateko ikaleentzat egokia. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

- Musika katea salgai: Pletina, sintonizatzailea, disko jogailu, diskoak gordetzeko altzaria eta hiru bideko bafleak. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

27. Erosi

- Egoera onean dagoen ordenagailua interesatuko litzaidake. Hainbat programa instalatuta eta inpresora badauka, hobe. Windows 98 -Excel 97. Tel.: 943 78 35 14.

29. Eman

Sofak oparitzen dira. 2 modulo, bien artean 2,35 m. okupatzen dute. Tel.: 943 77 16 45. Edozein ordutan, edo mezua utzi.

31. Galdu

- Larunbatea urrezko eraztun-zigilua galdu nuen, SC siglekin. Barrualdean Vicente eta 11-3-99 data dauzka. Tel.: 943 79 85 81. Sarituko da.

- Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

32. Aurkitu

- Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

33. Bestelakoak

- Bolinete errotako argazki bat lortu nahi nuke, kopia bat ateratzeko. Tel.: 943 72 55 92 / 609 55 08 40.

HARREMANAK

37. Bestelakoak


- Orrialde hauetako irakaskuntza sailako eskaeretan agertzen den "gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke" iragarkiarekin deia hartu zuenak, mesedez deitu berriz ere 943 79 79 12 telefonora.

txuntxu berde



Maabako Arrababa 23. Arrasate. t 943 771847.

Umeen Oinetakoak



Don Pedro Biteri eta Arana jaun handia izan zen mende hasierako Arrasaten. 1833an jaio eta 1908. urtean hil zen gizonezko hau. Tarte horretan, bere diruarekin hainbat eskola eraiki zituen bai Arrasaten eta baita Gipuzkoako beste herri batzuetan ere, Donostian barne.

Arrasaten, gehienok ezagutu edo behintzat noizbait entzun dugu "Biteri Eskolen" berri, Biteri Etorbidean egon ziren bere garaian.

Don Pedro Biteri eta Arana hil eta hiru urtera, Arrasatek omenaldia egin nahi izan zion oroitarri baten bitartez. 1911. urtekoa da beraz argazki hau. Orduan inauguratu zen Don Pedoren omenezko


oroitarria Biteri Eskolen lorategian. Garaiko neska-mutikoak izan ziren inaugurazio ekitaldian, heziketa Don Pedrori zor ziotenak, hain zuzen ere.

Gerora, Grupo San Juan direlako etxeak egitean, haraxe eraman zuten Don Pedro Biteri y Aranaren oroitarria.

Don Pedro Biteri y Arana, Arrasate herriko seme

kuttun ere bada. Udaletxeko osoko bilkura aretoan dago haren argazkia Esteban de Garibai eta Maisu Aranorenkin batera.

Argazkia: Arantza Alonso.
Berriematea: Arrasateko artxiboa.

OPEL 



TAKOLO AUTOAK

OPEL FRONTERA BERRIA!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
 Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

BORN TO BE FREE
BORN TO BE FREE



KIROL BAKOITZARI ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8
Tel.: 943 79 46 12 • Arrasate

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA